

HBk politika aldaketa eskatu dio PSEri bi alderdien arteko bileran

HB eta PSEko kideek egoera politikoa aztertut zuten herenegun

Eider Goenaga / Donostia

Jose Maria Benegas, Jesus Egiguren eta Nicolas Redondo Terreros sozialistek eta Ibon Arbulu, Kepa Gordejuela, Joseba Permach eta Fernando Barrena HBko mahaikideek bilera bat egin zuten herenegun Bizkaian. EGUNKARIA-k jakin duenez, bileraren helburua egoera politikoa aztertzea zen. HBko kideek orain arteko jarrera politikoaren inguruko hausnarketa eta aldaketa eskatu zieten sozialistei.

HIRU ideia helarazi zizkieten HBko kideek herenegun buruzagi sozialistei. Horien artean nagusia sozialistei euren jarrera aldatzeko egin eskaera, «Euskal Herrian ireki den prozesu demokratikori lagundu eta oztopoak ez jartzeko» eskaera.

HBk dio PSEk aukera paregabea galdu duela su-etena- ren ondoren izandako jarre- rarekin, eta hala adierazi zie- ten bileran. «Euskal Herrian zabalduetako prozesu berri honetan PSEk ez du eszena- toki politikoa aprobetxatu. Orain arte egindako guztia PPren jarraipen politikoa egi- tea izan baita», adierazi zieten HBko kideek sozialistei.

Bestalde, inolako bazterke- tarik ez dutela egin nahi adie- razi zieten, Lizarra-Garaziko sinatzaileen asmoa «guztiz irekia eta integratzailea» dela, eta horrela jasotzen duela akordioak berak. Horregatik, jarrera aldaketa eskatu zie- ten sozialistei. «PSEk posizio politikoak aldatu eta Euskal Herrian zabaldu den prozesu demokratikora hurbildu behar ditu. PSE gonbidatu dugu sakoneko hausnarketa bat egin, bere posizio politi- koak aldatu eta beste klabe politiko batzuetan funtziona- tzeraz», esan zuen HBk.

Hirugarren ideia da ireki prozesu demokratikoa euskal herritarrek beren kabuz aurrera eramango dutela, Paris eta Madril kontuan har- tu gabe. Hala, prozesuari ez oztopoak jartzeko eskatu die- te, zerbait egiteko prozesua laguntzeko. Azken batean, helburua euskal herritarrek erabakitzea eta haien hitza errespetatua izatea baita.

Sozialisten erantzuna ho- rrek guztiak gizartean aurka-

ritza eragingo duela izan zen. HBko kideek adierazi zieten hori ez dela errealitatea, poli-

tikarien adierazpenek eragin- dako egoera psikologiko bat baino ez dela.



Nicolas Redondo Terreros eta Jose Maria Benegas, artxiboko argazki batean.

PINO / EFE